


# Aitzina goaz.

# Un projet pour le Pays Basque.



# LEHEN KONGRESUA

2022ko azaroaren 26a



# AURKIBIDEA

## TXOSTEN POLITIKOA

### 0.- Sar Hitza

#### 1.- Testuingurua

1.1.- Orokorra.....	5
1.2.- Frantses Estatu.....	6
1.3.- Euskal Herria.....	7

#### 2.- Fase politikoa: Herri gisako prozesuan aitzinatu

2.1.- Burujabetza ortzimugan.....	8
2.2.- Estatus politikoaren aldaketa.....	9
2.3.- Agenda partekatua.....	9
2.4.- Aliantza zabala.....	9
2.5.- Prozesuaren herri izaera.....	9
2.6.- Espazio zabalen artikulazioa.....	9
2.7.- Herri mobilizazioaren garrantzia.....	9

#### 3.- Ondoko urteetako erronkak

3.1.- Sekuentzia instituzional berriaren aldeko dinamika berpiztu.....	10
3.2.- Bake prozesua bururaino eraman.....	10
3.3.- Euskalduntzean aitzinamenduak egin.....	10
3.4.- Lurra eta etxebizitzaren arazoari aterabideak eman.....	10
3.5.- Metamorfosia ekologikoaren gauzatzea.....	10
3.6.- Egitura sozial eta ekonomikoen aldarrikapena.....	11
3.7.- Borroka feministari bultzada.....	11
3.8.- Nazio eraikuntza sendotu.....	11
3.9.- Mugimendu abertzalearen gaurkotzea.....	12
3.10.- EH Bairen proiektua azkartu eta hedatu.....	12

#### 4.- EH Bairen funtzioak ondoko urteetan

4.1.- EH Bai, herri prozesuaren sustatzaile.....	13
4.2.- Sekuentzia instituzional berriaren bultzatzaile.....	13
4.3.- Proiektu politiko integral baten eskaintza jendarte osoari.....	13
4.4.- Hauteskunde erronkei anbizioz ekin.....	13
4.5.- Lan instituzionala, eraldaketarako.....	14
4.6.- Herri mobilizazioaren sustapena.....	14
4.7.- Borroka ideologikoa eta mezu propioa.....	14

#### 5.- EH Bairen izaera

5.1.- EH BAI, proiektu abertzale eta ezkertiarren eramaile.....	14
5.2.- Mugimendu abertzalearen ADN.....	15
5.3.- EH Bairen identitate bikoitza: ekintza sozio-politikoa eta lan instituzionala.....	15

#### 6.- Aliantza estrategia

6.1.- Herri akordioak, gehiengo sozial eta politikoak.....	16
6.2.- Aliantza elektoralak.....	16
6.3.- EH Bildurekin akordio estrategikoa.....	17
6.4.- Frantses Estatu mailako harremanak.....	18



# Aitzina goaz.

Un projet pour le Pays Basque.

## 0.- Sar hitza

Hamabost urte joan dira Ipar Euskal Herriko ezkerreko abertzaleek iraganeko zatiketak gainditzeko ahaleginari ekin eta elkarrekin proiektu komun bat eraikitzeko urratsa egin genuela. 2007an, lehen aldikoz, EHBai koalizio gisa publikoki aurkeztu zen jendaurrera, frantses parlamenturako hauteskundearen kariatara. Geroztik sakoneko gertaerak izan dira Euskal Herrian eta munduan: ETArekin bukaeraraino ailegatu den prozesua, sistema kapitalistak eragindako krisi ekonomiko eta finantzarioa, aldaketa klimatikoaren azkartzea eta berrikiago, Covid-19aren pandemiak agerian eman duen krisia, besteak beste.

Epealdi honetan, EHBAi bere garapena izan du, barne zein kanpo mailan, eta ezkerreko abertzaleen erreferentzia politiko-instituzionala bilakatu da. Halako prozesuetan gertatzen denez, ibilbide honek bere gorabeherak izan ditu, baina balioan jarri behar dira indar batasunaren alde egin den ahalegina eta kausitu ditugun aitzinamenduak. Azken hamarkadan herri mobilizazio zabalek eta adostasunek ezaugarritu dute Ipar Euskal Herriko bizi sozial eta politikoa, zenbait aldaketa garrantzitsu ere izan dira, eta beraz, ondoko urteei begirako perspektiba berriak gogoeztatzeko momentuan gara.

Hala, EHBairen lehen kongresurako dokumentu honek, ondoko lau urteei begirako ildo politikoaren gako nagusiak finkatzea du xede, bizi dugun testuingurua eta egin diren aitzinamenduak kontuan hartuz.

## 1.- Testuingurua

### 1.1.- Orokorra

Egoera orokorrari begirada bat emanez gero, argazkia aldakorra eta ezegonkorra dela erraten ahal da. Azken urteetan mundu osoa baldintzatu duen Covid-19ak eragin krisia ofentsiba neoliberal orokorrak eragindako krisi sakonaren baitan kokatu behar da. Azken urteetan sistema kapitalistak pribatizazioak, sistema publikoaren murrizketak edota prekarizazioa emendarazi ditu, jendarteko sektore anitz kolpatuz. Horrekin batera, lan munduan aldaketak gertatzen ari dira, erraterako, digitalizazio prozesuarekin edota telelanaren orokortzearekin, eta horrek, besteak beste, ondoko urteetan lan moldeak aldatzen ahal dituela iragartzen du.

Bestalde, ezohiko gertaera klimatikoek krisi ekologikoaren larritasunaren neurria agerian eman dute. Lehengaien eskasia aurreikusia da eta ber denboran handia den migrazioaren fenomenoak emendatuko da. Munduan gerla eta lehia estrategikoak ere testuinguru orokorraren baitan kokatu behar dira. Europar Batasunak AEBekin lerratze bidea hartu du. Ukrainaren kontra Errusiak burutu duen erasoaren iturri konplexuetan sartu gabe, ondorio geopolitiko eta ekonomiko garrantzitsuak eragin ditu jada: jende migrazio mugimendu handiak, NATOren ber indartzea eta herri berri batzuen kideztzea, Mendebaldeko herrien armatze politikak, zerealen eskasia kon-

tinente batzuetan, energia iturrien prezioen gorakada eta inflazio nabarmena.

Sistema kapitalista berrasmutzen eta berkokatzen ari da, eta zentzu horretan, ezegonkortasun sozialaren eta larrialdi klimatikoaren testuinguruan, berkokapen hori eredu autoritarioagoen eta gibelatze sozialaren ildotik etortzen ahal da, desberdintasun eta prekariedade handiagoa eraginez, eta jendartearen ongizate maila apalduz.

Justuki, estatuak askatasun demokratikoak murriztu dituzte, segurtasunaren izenean neurri errepresiboak emendatuz. Horren adibide da Frantses Estatuan onartua izan zen Segurtasun Orokorreko legea eta pandemia garaian inposaturiko ziurtagiri sanitarioen baitan herritar anitzek jasan beharreko murrizketak.

Egoera honek guziak krisi orokor baten sentimendua emendatu du herritarren artean, segurgabetasuna handituz. Iduri du jendarteak egonkortasuna eta babesa galdegiten dituela, baina hori ez da beti egungo sistema errotik irauli eta gainditu nahi duten aukera politikoen mesedetan izaten. Areago, pandemia garaian, estatuak kapitalismoak markaturiko norabideen menpe jokatzeko dute eta bide horretan, zentralizatorako joera azkartu dute, botere gehiago metatzeko eta sistemak testuinguru honetan beharrezko dituen egokitzapenak gauzatzeko.

Edozein kasutan, burujabetza, birtokiratzea eta tokian tokiko aterabideen aldeotasuna hazten ari da. Kontzeptu horiek, aldaketa ekologikoaren aldeko diskurtsoen muienean kokatuak dira, eta ezkerreko abertzaletasunarentzat baldintza hobek eskaintzen ahal dituzte.

Gainera, Europaren baitan estaturik gabeko nazioetako burujabetza prozesuen indartze bat gertatu da azken urteetan. Irlandan Sinn Feinek eta Eskozian SNPk izan duten arrakasta elektoralak horren adierazle izan daitezke. Lehenean lurralde batasunerako eztabaida lehen lerroan ageri da eta bigarrenean, 2023rako autodeterminazio erreferenduma iragarri du Gobernuak. Ezin da ahortzi, halaber, azken bi hamarkadetan Korsika, Katalunia, Gales, Flandria, Feroe Uharteak edota Groenlandian gutxiengoan ziren mugimendu independentistek gehiengoak eskuratu izan dituztela. Burujabetzaren nahia eta beharra agerian uzten duten prozesuak dira.

## 1.2.- Frantses Estatura

Frantses Estatuko egoerari doakionez, beharrezkoa da azken urteetan bere bilakaeran tendentzia orokorrak diruditen hainbat puntu azpimarratzea. Seguruenik, hauek ondoko urteak baldintzatuko dituzte.

### • Bilakaera neoliberal eta autoritarioa

Frantses Gobernuen kolorea dena delakoa izanik ere, UMP (Sarkozy), PS (Hollande) eta orain LREM (Macron), politika

gero eta liberal eta autoritario sakonagoetarako ageriko eta asumituriko bilakaera argi bat baieztatzen ahal da. Biak elkar lotuak dira, autoritarismoa krisi sozial garaieran populakuntza kontrolatzeko bitartekoa delako, eta krisia neoliberalismoak eragiten dituen ezberdintasunetatik sortzen delako.

### • Krisi politikoa

Azken hauteskunde guzietan abstentzioaren emendatze iraunkorra ikusten ari gara eta ezkerreko eta eskuineko alderdi politikoa tradizionalak ez dira gai izan eztabaida politikoa baldintzatzeko, gisa horretan azken hamarkadetan ukan duten zentralitate politikoa galtzen ari direlarik.

Hala ere, 2022ko apirilean eta ekainean iragan frantses presidentetzarako zein parlamenturako hauteskundeek panorama berri bat sortu dute Frantses Estatuan. Emmanuel Macronek presidentetza eskuratu badu ere, batez ere frantses ezkerrek indarrak batzeko egin parioaren eraginez, ez du gehiengorik lortu parlamentuan. Horrek frantses Gobernuaren politikak nabarmen baldintza ditzaie, ezegonkortasun politikoa elikatzearekin batera. Hauteskunde berri batzuen aukera ez da baztertzekoa. Gisa berean, oraindik goiz da jakiteko frantses ezkerrek egin aliantzak zer bide egingen duen eta ea berkonfigurazio politikoa bat gertatuko ote den.

Bestalde, eskuin muturraren emendatzea ere azpimarratu behar den elementua da. Aipatu bi hauteskundeetan lortu emaitzak horren adierazgarri dira, presidentetzarako lehian ez ezik, parlamentuan inoizko ordezkartza handiena eskuratu baitu. Mugimendu politikoa honek zabaltzen dituen ideiak indarra hartzen ari dira jendartearen, bere zenbait kontzeptu politikoa beste alderdi politikoa batzuk, hedabideek eta iritzi emaileek bere egiten dituzte. Frantses Estatuan eskuin mutur tradizionala beti existitu bada ere, azken urteetako bilakaera liberalak bere errotzean eragina izan du.

### • Frantses Estatuaren zentralismoa

Frantses Estatuaren oinarri zentralista eta jakobinoak ez dira aldatu. Krisi sozial eta politikoa testuinguruan, erabakiak zentralizatu eta bertikalagoak bilakatzeko joera du. Bere menpe dituen herri ezberdinek ondorioak pairatzen dituzte, bai hizkuntzen aitortzari dagokionez bai bakoitzaren lurraldearen garapen instituzionalaren ikuspegitik.

### • Nazio askapen borroka ezberdinen bizitasuna

Zentralismo horren aitzinean, herri ezberdinek beren aitortzaren aldeko borrokan segitzen dute. Kanaky, Korsika, Britainia... Nahiz eta aldarrikapen eta egutegi maila ezberdinak ukan, borroka hauek guziek identitate hauen aitortzaren auzia erregulariki frantses aktualitatean izaitaie eragiten dute. Hala ikusi ahal izan da Yvan Colonna militante independentistaren heriotzarekin, Kanakyko erreferendumarekin edota Britainiaren berbatzearen aldeko borrokarekin.

Ondoko hilabeteetan bereziki Korsika eta Frantses Estatuaren artean ireki den elkarrizketa dinamika arretaz segitu behar da, horrek Euskal Herriaren estatus politikoaren eztabaidan eta preso politikoaren auzian eragina izan dezakeelako.

### 1.3.- Euskal Herria

Munduko testuinguruaren baitan eta bi estatuen menpe, Euskal Herria ez da salbu arestian aipatuak izan diren tendentzia horietatik. Frantses Estatuaren ukazioa eta zapalaketarekin batera, krisi sozial, ekonomiko, sanitario eta ekologikoak bere ondorioak ditu gurean ere.

Herri gisa ez dugu aski tresnarik desafio horiei aurre egiteko, baina hala ere, azken urteetan aitzinamenduak egin dira eta Ipar Euskal Herriaren garapenerako funtsezkoak diren gaietan adostasunak lortu dira.

#### • Borroka armatuaren zikloaren bukaera eta agertoki berria

Aieteko konferentziak eta ETaren borroka armatuaren bukaerak inflexio puntu historikoa markatu dute euskal gatazkaren ibilbidean, erronka bikoitza sortuz Euskal Herriko panorama politikoan: burujabetza prozesuan eta lurralde batasunean pausu erabakigarriak ematea eta gatazkaren ondorioak konpontzea.

Aietek bere ondorioak izan ditu Ipar Euskal Herrian ere, hainbat urrats erraztuz: estatus bereziko Lurralde Kolektibitatearen inguruko adostasun zabala eta Euskal Elkargoaren sorrera. Hori dela eta, 1992an "Pays Basque 2010" gogoetarekin ideki zen faseak Ipar Euskal Herrian sekuentzia politiko berri bati lekua utzi zion.

2011eko Aieteko nazioarteko konferentziatik 2018ko ETAren desegiteraino, bake prozesuaren garapenak baldintza berriak sortu ditu. Ildo horretan, iraganean zatiketa iturri nagusietarikoa izan den borroka armatuaren zikloaren bukaerak, fase berri bat ideki du proiektu abertzalearentzat.

#### • Instituzionalizazio prozesua, Euskal Elkargoaren sorrera

Euskal Elkargoaren 2017ko sorrerak lurraldetasuna finkatuz urrats inportante bat suposatu zuen. Jendar-tean horren eragin nabarmenik oraindik ez dugu senditzen, baina pentsa daiteke, urteen poderioz, Ipar Euskal Herriari begirako identifikazio maila indartuko duela. Bestalde, aukeran ziren eskumen guziak hartuak izan dira eta beraz, hainbat politika publiko Ipar Euskal Herriaren mailan planifikatzearen beharrak lurralde ikuspegia sendotzen laguntzen du eta ondorioz, proiektu abertzalea indartzen.

Gaur egun Euskal Elkargoa desegitea edo lurraldetasuna zalantzan ematea guti partekatua den arren, bere funtzionamendua kritika eta asegabetasun frangoren iturri da. Abertzale ikuspegi batetik, egiturak demokratikoki asega-

bea jarraitzen du izaten, bereziki hautaketa moldeagatik, eskumen mugatuengatik eta ondorioz, erabakiak hartzeko ahalmen urritasunagatik.

Bost urteko ibilbidean, Euskal Elkargoa egonkortzea izan da eginkizun nagusietarikoa. Hein batean, burujabetza eta eskumen gehiago eskainiko dituen estatus berri baterako aldarrikapena lausoturik ageri da debate publikoan eta gauden etapan, kudeaketa instituzionalean kateaturik gelditzeko arriskua kontuan hartu behar da. Hala ere, instituzio berriak erakusten dituen mugak eta ezintasunak agerian geratzen ari dira ere. Honek guziak erakusten digu ondoko hilabete eta urteetan aldarrikapen instituzionalaren ildoan ibilbide berri bati ekitea.

#### • Bake prozesua, gatazkaren ondorioen konponbidea

Bake prozesua hitzordu nagusi batzuek elikatu eta gidatua izan da, eta hauek, aldi bakoitzean oinarri politikoei loturiko esparru berriei ekarpena egin diete. Hala, aukera berriak ideki dira gatazkaren ondorioen konponbidea eta Euskal Herriaren aitortzarantz aitzinatu ahal izateko.

Denbora luze honetan aitzinamenduak izan dira, hastapean frantses Estatuak euskal presoan lehen hurbilketak eta batzeak egin zituen, betiere Ipar Euskal Herriatik egin presioaren ondorioz, geroago espainiar Estatuak ere segituko zituenak. Presoen egoera hobetu da, sakabanaketa kasik bukatua da eta erbesteratu anitz itzuli dira etxera. Alta, aitzinamendu hauek ez dira inolaz ere aski, salbuespenezko neurrien bukaeraz harago, presoan askapen prozesu orokorra abiarazi eta militanteen kontrako prozesu judizial ororen etena gertatu behar delako.

Euskal preso politikoaren askapen prozesu batekiko printzipioak egun adostasuna jasotzen du gehiengo sozial, politiko eta instituzionalen aldetik ere, lurralde osoan gainera. Sektore berri hauek presoan askapenaren alde kokatzen dira, azpimarratuz, euskal jendartearen elkarbizitza eraikitzeke baitezpadako etapa dela.

Azken urte hauetako indar harremanek egoera desblokeatu eta urrats azpimarragarriak eragin dituzte, baina horrek ez du permititu nahi bezain azkar eta urrun joaterik. Egoeraren blokeoa ikusita, elkarrizketa etenda, azken hilabeteetan Ipar Euskal Herrian, adostasunetik desobedientzia ikuspegiko mobilizazio etapa ireki da, zeinak uztailaren 23an blokatze egunean inflexio garrantzitsua ukan zuen eta Ion Parot eta Jakes Egnalen baldintzapeko askatasuna lortzea ekarri duen.

#### • Herri mobilizazioak

Ipar Euskal Herriko jendartearen sektore ezberdinen borrokarako mobilizazio gaitasuna eta erabakitasuna azpimarratu behar da. Euskal Herrian mobilizazio berezi anitz egin dira: euskararen defentsa eta biziberritzea, euskal presoan eta bake prozesuaren alde, G7ren aurkako mobilizazioa, lurraldearen espekulazioa, etxebizitza, laborantza iraunkorraren defentsa eta sustapena, AHTren kontra...

Mobilizazio sozial hauek aitzinamendu instituzionalak eragin dituen indar harreman bat gorpuztea permititu dute. Aldiz, EHBai erreferentziatzen duen gazte mugimenduari dagokionez, azken urteetan hutsune bat nabari da.

Herri mobilizazio eta aldarrikapen mugimenduei dagokienez, Frantses Estatu mailako borroka nagusiak Ipar Euskal Herrian ere deklinatu dira, gutxienez abertzaleen parte hartze nabarmen batekin, eta askotan haiek sustaturik (lege sozialen edo seguritate proiektuen kontra, aldaketa klimatikoa, migratzaileen harrera eta defentsa...). Aldiz, Jaka Horiak edo anti-pass bezalako ezohiko mugimenduei dagokienez, abertzaleen parte hartzea mugatuagoa izan da.

#### • Indar harremanak Ipar Euskal Herrian

Indar politikoen mailan, zentro eta eskuinak nagusi izaten jarraitzen dute Ipar Euskal Herrian. PNBren pisua mugatua da baina azken aldiaren bere eragina indartzeko ahalegina egiten ari da.

Ezker aldean, aurrerapenak abertzaleen eskutik datoz nagusiki, bere presentzia indartzen dutenak, batez ere tokiko hauteskundeetan (herrikoetan eta departamentukoetan). 2022ko hauteskundeetan, aldiz, fenomeno berriak agertu dira, nagusiki Parisen adostu frantses ezkeraren aliantzaren eskutik, baina goizegi da iraunkorak izanen ote diren erraiteko. Bestalde, aski ahula zen eskuin muturraren botoen emendatzea ezin da oharkabean pasa eta ikustekoa izanen da noraino egonkortzen den lortu duen sustengua.

Ezkerreko abertzaletasuna indartu da azken urteetan, nahiz eta geografikoki ezberdinki, bereziki BAB-Aturri eremuan. Alternatiba sinesgarri bihurtu da, frantses ezkeraren ahultze eta hondatze testuinguru batean. Ikustekoa da, Frantses Estatuan hasi den ezker aldeko berrosaketak zer eraginen duen, kontuan hartuz hemen beste oztopo batekin topo egiten duela: korrante jakobino eta nazionalista frantsesa, Euskal Herriko problematika bereziki guztiz hetsia.

Tendentzia politikoetatik harago, azpimarratzekoa da azken urteetan funtsezko gaitetan adostasun zabalak lortu direla eta eskema horrek permititzen ahal digula herri gisa Estatuaren aitzinean indar harreman bat izatea. Abertzaletasunetik, frantses ezker, zentro eta eskuineraino, ezberdintasun guzien gainetik, gehiengo bat agertu da bake prozesuaren alde, etxebizitzaren arloan, euskarazko murgiltze sistemaren alde, AHTren aurka... Euskal Herriaren biziraupen eta garapenaren ikuspegitik, abertzaleok bereziki zaindu beharrekoa izanen da ondoko urteetan.

#### • Nazio eraikuntza

Eraikuntza nazionalari dagokionez, bai errealitatean, bai herri-kontzientzian, egoera argi ilunez betea da. Ekimen instituzionalak egin dira Euskal Herriko hiru administrazioen artean, baina puntualak izan dira (hizkuntza politikan salbu). Udalbiltzaren dinamika bere potentzialtasuna ez du garapenik izan.

Herri mugimenduen aldetik, euskarak lehen lerroan izaten jarraitzen du (Korrika, Euskaraldia), preso politikoen eta bake prozesuaren defentsarekin, Ipar Euskal Herrian gutti garatu diren beste ekimen batzuen ondoan (Gure Esku dago, Euskal Herria Batera). Aipatzekoa da «G7 EZ» plataforma, azken urteetan Euskal Herri osoko eragile sozialak bildu izan dituen ekimen zabal bakarra.

EHBai-EHBilduren akordio estrategikoak estrategia eta ekintza konkretu batean gauzatu behar du oraindik.

## 2.- Fase politikoa: Herri gisako prozesuan aitzinatu

Azken urteetan Ipar Euskal Herrian azkartu den prozesu partekatuak aitzinamenduak egitea permititu du, batez ere Frantses Estatuaren aitzinean eta euskal herritarren begietara, Euskal Herriaren intereseei begirako indar harreman berri bat sortzea ekarri duelako. Egun, bere indargune eta ahulguneekin, erran daiteke gehiengo sozial, politiko eta instituzional bat dagoela herri gisa funtsezkoak diren hainbat gaien inguruko adostasunetan sakondu eta aitzinatzeko.

### 2.1.- Burujabetza ortzimugan

Abertzaleok prozesu hori jendartean burujabetza gehiagoren beharra indartzeko ikuspegiaren kokatzen dugu. Egun, Ipar Euskal Herriak erabaki propioak hartzeko duen ahalmen urria eta menpekotasun politiko, instituzional, ekonomiko, energetiko zein kulturala ikusirik, eta Frantses Estatuaren zentralizazio eta mespretxu joeraren aitzinean, erabakiak bertan hartzearen aldeko kontzientzia azkartzeko parada eman dezakete ondoko urteek. Abertzale edo independentista izan gabe ere, geror eta sektore gehiagotan, arazoei aurre egiteko eta hobeto bizitzeko aterabide gisa agertzen da eskumen gehiago ukaitearen aldarrikapena.

Izan ere, gibelatze demokratikoaren eta krisi sakonak eragiten ari den sistema politiko eta ekonomikoaren aitzinean, ondoko urteetan burujabetzaren bidea da horiei erantzun egokiak emateko proiektatzen ahal den aterabidea. Egungo garaietan, irtenbide demokratiko eta justua eman dezakeena. Frantses Estatuarekiko ez atxikimendu eta segurgabetasun sentimendua azkartu ahala, krisi politiko, ekonomiko, sozial eta ekologikoari aurre egin diezaiokeen bidea eraikitzeaz ari gara. Batetik, Euskal Herriak eta bertako erakundeek egun desafio horiei erantzuteko duten gaitasun eza agerian utziz, eta bestetik, beharrezko liratekeen aldaketa estrukturalak ahalik eta indar gehienekin mahai gaineratuz.

Burujabetza prozesua graduala da, borroka bide bat, gehiengo berriak eraikiz eta Estatuaren aitzinean aldarrikapen zehatzak kokatuz, urratsez urrats ibili beharrekoa. Estaturik gabeko beste hainbat naziotan gertatzen ari den bezala, garrantzitsua da Ipar Euskal Herrikoa ere indar



metaketa handiak izanen dituen prozesu gisa ulertzea. Estatuak gehiengoaren borondateari ukazio eta mespretxuarekin erantzun eta Parisen gure herriaren eta oro har jendartearen interesen kontrako erabakiak hartzen diren heinean, polarizazio handiagoa emango da Euskal Herriaren eta Estatuaren artean, horrek gehiago indartu beharko dituelarik burujabetzaren aldeko posizioak. Hauek dira prozesu horren ondoko urteetarako gako nagusiak:

## 2.2.- Estatus politikoaren aldaketa

Eragile sozial eta politikoen arteko ibilbidean oinarritzen den herri prozesu izaera horrek eta Euskal Elkargoaren sortzeak, Ipar Euskal Herria lurralde gisa egituratzeko fase berri batean murgilarazi du. Fase horretaz ari garelarik, lau urteko epealdia gainditzen duen ikuspegi luzeagoko denboraz ari gara. Ildo horretan, burujabetzaren bidean, ahalik eta botere eta erabakitze ahalmen maila handiena izatea da ondoko urteetako erronka nagusia eta horrek erran nahi du estatus politiko-instituzionalaren aldaketa kausitu behar dela. Are gehiago, Euskal Elkargoaren kompetentzien mugak, gobernantza ereduaren gabezia demokratikoak eta aitzinamendurik ezean, egungo egoeran kateaturik gera gaitzkeela kontuan hartzen badugu. 2012an estatus bereziko Lurralde Kolektibitate baten aldeko akordio sozial eta politikoa erdietsi zen eta abiapuntuzko adostasun horretatik, eztabaida berpiztu behar da, hamar urte geroagoko testuingurua kontuan hartuz, aitortza instituzionalaren aldarrikapena berdefinitzeko. Abertzaleok, anbizioarekin ekin behar diogu trantsizio hori egiteko erronkari, beti urrunago joateko entsegua eginez gainerateko eragileekin batera adostu beharreko edukietan eta dinamikan.

## 2.3.- Agenda partekatua

Aldaketa hori prozesu instituzional huts batetik haragokoa da, erran nahi baita, Ipar Euskal Herriak behar dituen aitzinamenduak, arlo ezberdinetan akordio sozial eta politiko zabalak landuz, herri mobilizazio handien bidez eta proiektu estrukturatzaileak plantan emanez egin beharko direla. Baina gisa berean, Euskal Elkargoak eta hautetsiek paper garrantzitsua jokatu beharko dute trantsizio hori egiteko, Ipar Euskal Herria subjektu politiko gisa hartzen duen instituziotik berri batera jauzi egin behar baita. Beraz, ondoko urteetan agenda partekatu eta berritu bat adostea eta horren inguruko dinamika bateratua bideratzea beharrezkoa izanen da Frantses Estatuaren aitzinean herri gisa agertzeko.

## 2.4.- Aliantza zabala

Horrek guziak agerian ematen du, azken urteetako bideari jarraikiz, Ipar Euskal Herrian ahalik eta prozesu transbertsal eta zabalena garatu behar dela, abertzaletasunetik haragokoa, politikoki zein instituzionalki, ikusmolde eta ibilbide desberdinak dituzten indarrekin batera egin behar dena. Kontuan hartu behar da, gainera, oraindik orain mugimendu abertzalea ez dela indar hegemonikoa eta egun,

zentro-eskuinak duela nagusitasun elektoral-instituzionala. Ezkerretik eskuineraino prozesuaren kontrako sektoreak daudela argi izanik ere, azken urteek erakutsi dute aldarrikapen batzuen garapenaren aldeko bidea nagusitu dela. Hori dela eta, aitzinera begira, adostasuneko bidea elikatzea baitezpadakoa izanen da, prozesua eta edozein aldaketa zangotrabatu nahi luketen sektoreei aukera ttipiena ere utzi gabe.

## 2.5.- Prozesuaren herri izaera

Halaber, jendarte zibilak herri prozesu horren bultzadan eta garapenean aktore saihestezina izan behar du, ibilbide horren herri izaera bermatzeko funtzio klabea betetzen duelako. Euskal Elkargoaren sorreraren aurrekarietan paper aktibo bat jokatu zuen eta egun, instituzio bat ukaiteak, jendarte zibilaren rola ahultzea, bigarren mailan gelditzea eta hautetsien interes politikoak nagusitzea ekar lezake arrisku gisa. Are gehiago, azken hori elikatzen duen ereduaren denean Elkargoarena. EHBai uste du sindikatu, eragile sozial eta elkarteak Ipar Euskal Herriaren egituratze prozesuaren aktore zentral izan behar direla. Jendarte zibilaren eta hautetsi zein instituzioen arteko harreman egoki bat eramatea gakoetariko bat izanen da prozesuaren herri izaera segurtatu, jendartearen indarrak askatu eta posizio politikoak lerratzeko.

Ildo horretan, Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluarekin eta parte hartzen duten ordezkariekin lan bat eramatea inportantea izanen da ere, kontuan hartuz egun bere baitan jendarte zibileko sektore ezberdinetako ordezkari andana bat biltzen duela eta lurralde proiektuari buruzko gogoetak egin eta orientabide estrategikoak proposatzen dituela.

## 2.6.- Espazio zabalaren artikulazioa

Hori guzia erranik, elkarlan esparruen indartze eta berrikuntza bat beharrezkoa izanen da. Zehazki, batera plataformaren izpirituari segika, espazio hori berrartikulatu eta bere protagonismoa berreskuratu beharko da, bertan aktore nagusien arteko gogoeta eta elkar ekintza bermatzeko, eta ondoko urteetan herri ikuspegiko aldarrikapen nagusiak berritzeko, hauek, ibilbide oso baten arabera, karrikara, instantzia ezberdinetara eta instituzioetara eramateko.

## 2.7. - Herri mobilizazioaren garrantzia

Agerian geratu denez, herri mobilizazioak prozesuaren erritmoa eta engaiamendu politikoaren heina markatzen du. Hori gertatu da bake prozesuarekin, euskararen aldeko borrokan, etxebizitzaren arloan edota bere garaian aldarrikapen instituzionalaren esparruan, batzuk aipatzearen. Fase honetan ere, Ipar Euskal Herriaren aitzinamendu politikorako oinarritzakoak diren gaien inguruko mobilizazio dinamikak ahalik eta zabal eta azkarrenak izan beharko dira. Horiei esker, aldarrikapen horiek jendartearen indarra

hartuko dute eta arlo politiko-instituzionaleko erabakiak baldintzatuko dituzte.

Guztiarekin, proposatzen dugun fase honetako erronkak arreta berezia eskatuko du. Izan ere, ezin daiteke erran azken urteetan egin diren aitzinamenduen segida segurtaturik dagoenik. Testuinguru politikoa aldarazten duten osagai berriak agertuko dira, hala nola, Frantses Estatuaren jarrera eta erasoak, indar harreman aldaketak, aktore batzuen indartze edo ahultzea edota bestelako interes politikoen arabera jarduerak. Mugimendu abertzaleak izanen duen gaitasuna ere faktore garrantzitsua izanen da. Horregatik, urrats oro prozesua elikatzearen ikuspegitik egin beharko da, EHBAik propioki eta baita beste eragileekin batera ere.

### 3.- Ondoko urteetako erronkak

Fase politikoaren inguruko kokapena eginik, logika horren baitan, ondoko lau urteetarako lehentasunezko erronkak finkatzea dagokigu. Gisa berean, erronken arrakasta bere esku soilik ez dela jakinik ere, EHBAik berak paper determinantea jokatzen du, bai gainerakoekin eraman behar ditugun dinamiketan, bai bere proiektu politikoaren arabera egin behar dituen proposamenetan.

#### 3.1.- Sekuentzia instituzional berriaren aldeko dinamika berpiztu

Aipatu dugun bezala, Euskal Elkargotik estatus politiko berri batera pasatzeko trantsizioa ireki behar da Ipar Euskal Herrian, noiz eta Frantses Estatuan berean, lurralde auziaren inguruko eztabaidak irekiak direnean. Adostasun handia bildu duen Lurralde Kolektibitatearen alde kokatzen gira, jakinik, Euskal Herrian eta Estatuan ere testuinguruan aldaketak gertatu direla, eta posible dela, oraindik ere handiagoak gertatzea. Edozein gisaz, eragile guziekin batera egin beharreko ibilbide eta eztabaida bat dela berresten dugu. Ondoko lau urteei begirako erronkak:

- Estatus politiko-instituzionalaren aldeko aldarrikapena lehen lerroan ezarri, erabakiak Euskal Herrian hartzeko beharra mahai gaineratuz.
- Mugimendu Abertzalearen Jardunaldietan erronka kokatu.
- Batera plataformaren ildotik, espazio partekatutak berrabiatu.
- Ipar Euskal Herriko jendarte zibila eta hautetsien arteko eztabaida egin eta adostasunak eraiki karrikara eta instituzioetara eramateko.
- Eztabaida horietan, ondoko etaparako estatus politikoaren definizioa adostera iritsi beharko da, EHBAik bere proposamenak eta ekarpenak egingo dituelarik.
- Autonomia estatutua eta autodeterminazio eskubidea EHBairen eskaintza instituzionala osatzen dutela ipar Euskal Herriko berrestea. Eta lurralde

kolektibitatearen aldarrikapenak kontsentsu puntua islatzen duela lurraldeko beste sentsibilitateekin.

- Euskal Elkargoa, Euskal Autonomi Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa batuko dituen Euskal Herriko europar mailako mugaz gaindiko eskualdearen lanketa burutu EHBildurekin batera.

#### 3.2.- Bake prozesua bururaino eraman

Azken urteetan urrats garrantzitsuak egin dira gatazkaren ondorioen konponbidea kausitzeko, baina hala ere, egun euskal preso eta iheslari politikoen auziak behin betiko aterabiderik gabe segitzen du. Edonola ere, irailaren 22an Jakes Esnal eta Ion Parot baldintzapeko askatasunean uzteko auzitegiek hartu erabakiak inflexio garrantzitsu bat markatuko du gatazkaren ondorioen konponbide prozesuan. Erabaki horrek presoen eta iheslari guziak etxeratu eta gatazkaren ondorio guztiak modu integralean konpontzeko bidea ireki beharko du. Etapa berri horretarako gogoeta garaia da.

Etapa berri honetan, etxeratze prozesuak eta gatazka politikoak eragindako ondorio guztiak, auzi politikoaren baitan kokatu behar dira eta elkarriketaren bidez konpondu. Horretarako, Euskal Herrian urteetan eraiki diren adostasun eta aldarriak errespetatuko dituen konponbide demokratiko bat sustatu behar dugu. Orain arte bezala, adostasun zabalak eta herri mobilizazioa dira giltza.

EHBAik, Baionako deklarazioa oinarritzat harturik, jendarte zibilarekin batera, bide honetan sortuko diren gogoeta eta dinamiketan parte hartze aktiboa izaiten segituko du.

#### 3.3.- Euskalduntzean aitzinamenduak egin

Euskararen egoerak larria izaten segitzen du Ipar Euskal Herrian, baina azken urteetan bere aldeko politika eta neurriekiko babesa emendatu da jendartean eta arlo politikoan. Azterketak euskaraz egiteko eskubidea segurtatzea eta murgiltze eredia hedatzea ageri dira berehalako eronka gisa, baina Ipar Euskal Herrian euskalduntze prozesua azkartzeko, euskararen ofizialtasuna eta hizkuntza politika eraginkor baterako koadro baten aldarrikapena berreskuratatu behar da. Ildo horretan, beharrezko izanen dira:

- Euskalgintzak gainerateko aktore sozial eta politikoen sustenguekin bultzaturiko mobilizazio eta kanpaina zabalak.
- Murgiltze eredia orokortzeko estrategia bati buruzko adostasunak eraikitzea.
- Helduen euskalduntzea garatzeko politika bat plantan ezartzea edota sustengatzea.
- EHBAik bere hizkuntza politika definitu eta instituzio guzietan inizatibak martxan jartzea.

### 3.4.- Lurra eta etxebizitzaren arazoari aterabideak eman

Urte luzetako espekulazioaren arazoa larriagotu egin da azken urteetan eta faktore ezberdinen eraginez, ondokoetan areagotuko dela aurreikus daiteke. Azken garaian, haatik, Ipar Euskal Herrian mobilizazio azkarrak eta neurriak ere hartu dira egoerari aurre egiten hasteko. Aldiz, espekulazioa ahalbidetzen duten lege eta politikak indarrean dira, horrek bertako biztanleen bizi-baldintzak nabarmen kaltetzen dituelarik. Ondoko hilabete zein urteetan, etxebizitza duin baterako eskubidea bermatzeko aldaketa sakonak beharko dira, espekulazioa permititzen duten arautegiak indargabetuz eta berriak indarrean ezarri. Gakoetako batzuk izanen dira:

- Eragile sozial, sindikal eta politikoek osaturiko plataforma zabalaren mobilizazio dinamika.
- Ipar Euskal Herriko herri eragile eta hautetsien artean aterabideak adostea, karrikan eta instituzioetan norabide bera hartuz.
- EH Bai inizatiba politiko-instituzionalak abian ezartzea, Euskal Elkargoan, lurralde poloetan eta herrietan.

### 3.5.- Metamorfosia ekologikoaren gauzatzea

Badira jada zenbait urte aldaketa klimatikoaren ondorioez mintzatzen garela, eta larrialdi egoera emendatzen ari da munduan eta Euskal Herrian ere. Aurtengo uholde eta idorteak horren adibide garbia dira. Metamorfosia ekologikorako egitasmoak eta egoera horren aitzineko mobilizazioak ugaritu dira gurean, baina oraino gaiak duen larritasuna eta dimentsioa ez da behar bestekoa jendartean, eta azken urte hauetan herri maila edo oso lokalak diren borroketan zentratu gira. Energiaren gaia ere mahai gainera ekarri behar da, menpekotasun estrukturalen aitzinean gaudelako eta eskala txipitik handira pasatzea premiazkoa delako burujabetza energetikoaren bidean egiazko eraldaketa lortuko badugu. Oro har, gai transbertsal baten aitzinean gira, naturaz, planetaz eta lurraz mintzatzen girenean, biziak eta beraz, baita arlo sozialaz mintzatzen girelako ere. Horretarako, beharrezkoa izanen da:

- Trantsizio ekologiko eta energetikoaren erronketan herritarrek, gizarte zibileko eta mundu ekonomikoko eragileak sentsibilizatzeko mobilizazioak eta kanpainen indartzea, erabaki politikoetan eragiteko.
- Klimaren aldeko adostasun zabalak lortzea jendarte zibilaren, mundu ekonomikoaren eta hautetsien artean.
- Ingurumena suntsitzen duten proiektuak salatu eta gelditzea bai, baina batez ere metamorfosia ekologikoa eta energetikoa gauzatzeko lurralde mailako zein tokiko alternatibak eta politika publikoak planteatu ezartzea. EH Bai ikuspegi, proposamen eta alternatiba orokorren ekartzeko gaitasuna izan behar du.

### 3.6.- Egitura sozial eta ekonomikoen aldarrikapena

Sistema publikoaren pribatizazioak eta erreformen bidezko eskubide sozialen murrizketak jendarteko gero eta sektore gehiago hunkitzen ditu, prekarietatea emendatuz. Erabaki nagusiak gure lurraldetik kanpo hartzen direlarik, Euskal Herriak ez du aski ahalmen edo eskumenik langile klase eta herri sektore xumeen bizi baldintzen inguruko politikak garatzeko. Mobilizazio azkar eta zabalak beharrezko izanen dira kapitalismoaren erasoaldiari aurre egiteko, baina garrantzitsua izanen da aldarrikapen horiek frantses eskalatik euskal eskalara pasatzen hastea, indar harremanak sortuz Ipar Euskal Herrian eztabaida berri bat abiarazteko. Izan ere, eraldaketa sozial eta ekonomikoa egingarriagoa izan daiteke erabakiak bertan hartzen badira.

Bestalde, Ipar Euskal Herrian garrantzia berezia duen laborantza eremuak pairatzen duen egoera ere kontuan hartu behar da, eredu industrialaren mehatxupean izateaz gain, krisi ekologikoaren ondorioak ere aski gogorrek pairatzen dituelako. Mahaiaren gainean laborantza politika propioa eta elikadura burujabetza gaia ezarri beharko dira.

#### Horretarako, lehentasuna izanen dute:

- Sindikatu eta eragile sozialen mobilizazio dinamika sustengatzea.
- Langileen (baita langile independenteak) alde eta Iparaldeko erronka ekologikoak errespetatzen dituzten dinamika sozio-ekonomiko guztiak sustengatuz.
- Ipar Euskal Herriak beharko lituzkeen egitura/eskumen ekonomikoen inguruko eztabaida sozial eta politikoa abiatzea.
- EH Bai eraldaketa sozial eta ekonomikorako proposamen osoa egitea, krisi ekologikoaren auzia bere baitan bilduz, eztabaida horietan ekarpena egiteko eta ekonomia herritarren zerbitzurako tresna izateko alternatiba bideragarriak eta demokratikoak ahalbidetzeko.

### 3.7.- Borroka feministari bultzada

Patriarkatuak gure jendartean erroturik segitzen du. Are, sistema kapitalistak azken urteetan egin dituen erreformatik kaltetuak izan direnen artean emazteak izan dira nagusienetarikoa, haien bizi-baldintzak okertu direlarik esparru ezberdinetan, erraterako, lan munduan edota zaintzaren esparruan. Gainera, emazteen kontrako bortizkeria errealitate gordina da, egituraz molde eta intentsitate ezberdinez gauzatzen dena. EH Bai uste du sentsibilizazio azkarrago bat behar dela egungo zapalkuntza eta diskriminazio egoerari buruz eta feminismoaren aldeko mugimendu zein ikuspegia indartu behar direla ondoko urteetan. Hori dela eta:

- Mugimendu feminista eta haren mobilizazio eta dinamika sustengatuko ditu.

- Bere proiektu politikoaren osaketan eta garapean, EH Bai ikuspegi feminista bermatuko du, politika feminista zehar lerro gisa ulerturik. Ikuspegi hori xarta baten lantzearen eta onartzearen bidez gauzatu izanen da. Xarta hori bi alderditan deklinatua izanen da: bata barnekoa, gure antolaketarentzat funtzionamendu feministaren oinarriak ezarri, eta bestea kanpoko, alderdi politiko feminista gisa argiki identifikatua izateko aukera emanez.
- Hauteskundeetako programak eraikitzeke, xarta horretan oinarritu beharko dira hautagaiak.
- Gainerateko eragileekin Ipar Euskal Herrian feminismoan oinarritzen diren neurriak eta dinamikak bultzatzeko adostasunak bultzatuko ditu EH Bai, betiere mugimendu feministarekin lehentasunezko harremanean.
- Zaintza batzorde bat sortuko da: mugimenduaren baitan gertatutako ekintza sexistak salatzen ahalko zaizkio batzorde horri. Salaketa egin duten pertsonetaz, baita ekintza horien eragileetaz arduratzeko, batzordeak protokolo bat segituko du

### 3.8.- Nazio eraikuntza sendotu

Ezkerreko abertzaletasuna Euskal Herri osoan hedatua da, eta nahiz eta gure nazioa errealtate administratibo ezberdinetan banatua izan eta erritmo ezberdineko prozesuak eraman, nazio ikuspegi eta estrategia bat partekatzen dugu. Ondoko urteetan ezinbestekoa izanen da gainerateko lau euskal lurraldeekin harremanak sendotzea, estatus politikoen eztabaidak elkarrekin aztertzea eta nazio dinamikak zein proiektuak garatzea edota plantan ezartzea, Euskal Herriaren burujabetza bidean aitzinatzeke. Horretarako, beharrezkoa izanen da:

- EHBildurekin harremanak iraunkor bilakatzea eta elkarrekin gogoetak eta egitasmoak partekatzea. Tartean, Udalbiltzari buruzko gogoetak eta mugaz gaindiko harremanak ageri dira erronka gisa.
- Nazio mailako askotariko dinamika sozial, kultural, ekonomiko eta politikoak sustatu eta sustengatzea eta nazio gisa indartzen gaituzten hitzordu nagusiak finkatzea.

### 3.9.- Mugimendu abertzalearen gaurkotzea

Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzaleak ibilbide luzea egin du azken hamarkadetan eta gibelera egiten badugu, ez gira tronpatuko aitzinamendu argiak egin dituela erraten dugunean. Herri mobilizazio mailan, sektore gehienetan integratzeko izan duen gaitasunean, proiektu eta alternatiba berrien sorkuntzan, EHBairen sorrera eta jendarte zein instituzioetan hartu duen lekua adibide ukaezin gisa hartzen ahal ditugu. Borroka eta lan iraunkor horrek permititu du, zalantzarik gabe, egun abertzaleon ideiak jendartean nehoiz baino hedatuago izatea, anitza den

ekosistema antolatu oso bat ukaitea eta gainerateko sektoreak ere haien posizioak egokitzera eramatea.

Mugimendu abertzaleak aitortza inportantea bat lortu du, alimaleko aldaketa da eta horrek bere jokamoldea arrunt aldatzera eraman behar du. Gaurdanik begirada ondoko hamarkadan ezartzen badugu, Ipar Euskal Herria nora eta nola eraman nahi dugun gogoetatzea baitezpadakoa da, hortik finkatzen ahal diren helburuak, elkarrekin eraman beharreko estrategiak eta sektore ezberdinetan pentsa litezkeen arraberritzez aritzeko.

Horretarako jarri da abian mugimendu abertzaleko sektore eta militantzia anitza erakarri nahi dituen Mugimendu Abertzalearen Jardunaldiak, bereziki 2023tik 2024ko Aberri Egunera begira garatuko direnak.

EHBaik ekimen komun horren aldeko parioa egiten du, elkarrekin marraztu beharreko orientazio nagusietan ekarpena eginez eta bere egitasmo politikoa osatzeko ezinbesteko gertakari gisa kokatuz. Gisa berean, prozesu horrek lagundu beharko du EHBai ezkerreko abertzale guzien topaleku eta erreferentzia politikoa bilakatzen.

### 3.10.- EHBairen proiektua azkartu eta hedatu

Herri prozesuaren ikuspegiaren garrantzia azpimarratzen ari garen honetan, ibilbide hau arrakastaz egiterik izanen dugu, erran dugun bezala, ezkerreko mugimendu abertzaleak erronkari anbizioz eta eraginkortasunez heltzen badio. Azken urteetan, mugimenduaren sektore ezberdinen mobilizazio eta proiektu berriak plantan ezartzeko gaitasuna ikusi dugu, eta baita EHBairen bidez, instituzioetan indar harreman berriak sortzeko eta eragiteko izaten ahal duen ahala ere. Horregatik, burujabetzaren bidea indartzeko ezkerreko abertzale guziak biltzeko gai izanen den EHBai behar dugu, aipatu dugun gaurkotze horren baitan kokatuko dena, jendarteari proiektu politiko sendo bat eskaintzeko eta bere jardueraren bidez, hegemonia ideologiko eta politikoan aitzinatzeke.

- **Jendarteko esparru zabalago bat biltzeko boka-zioarekin** aritu behar du EH Bai, eta horrenbestez, ongi zehaztu beharko du etapa bakoitzean zer sektoretara zuzenduko den. Hala, kontuan hartu beharko du Frantses Estatuarekiko emendatu den ez atxikimendu maila, frantses ezkerrearen krisia eta gaur arteko indarren barreiatzea, krisi sozial eta ekologikoaren aitzinean Estatuak ematen ez dituen aterabideak... Egungo sistema kapitalista gaindituz jendarte berri bat eraiki nahi duen mugimendu politikoa izanik, sektore berriak erakartzeko gai izan beharko du ondoko urteetan, bere inguruan indar gehiago bilduz Euskal Herriaren proiektuaren eta eraldaketaren alde. EHBairen proiektu politikoa indartzeko eta zabaltzeko perspektiban, erronka bat da hautesle gazteak mobilizatzea, abstenitzen direnak edota berrikitan etorri direnak Iparraldera bizierra. Hauteskundeetatik haratago, gazteen inplikazioa

EHBairen aktibitateetan heldu den Zuzendaritzaren lehentasunetariko bat izan beharko da.

- Hori guzia ikusirik, **Ipar Euskal Herriko biztanleei proiektu politiko berritu bat eskaini** behar die EHBaiek. Hori izanen da erronka nagusietariko bat, hots, barne prozesu parte hartzaile bat eraman eta askotariko ekarpenen bidez, egitasmo politiko hori osatzea jendarte osoari egiazko alternatiba politiko, sozial, ekonomiko eta kulturala proposatzeko.
- Halaber, ezkerreko abertzaletasunak egitura eta sektore ezberdinetan eragiteko gaitasun handia duela nabarmentzen badugu ere, oraino beste hainbat esparrutan erreferentzia apala du. Erraterako, ekonomian, unibertsitatea munduan eta mugaz gaindiko harreman instituzionalan, batzuk aipatzearen. Horietan, frantses indarrek eta interes neoliberalak gidaturik EAJ-PNBk ordezkatzeko duen eskuineko abertzaletasunak hartzen dute protagonismoa. Beraz, boterea eskuratzeko ari garelarik, botere instituzionalaz harago, **esparru guzietan proiektu ezkerreko eta abertzalea eragina indartzeaz** eta burujabetza-aren aldeko norabidea elikatzeaz ari gara.
- **Hauteskunde erronkei dagokienez**, 2022-2026 epealdian hauek izanen dira hitzordu nagusiak:
  - 2023an, hauteskunde senatorialak.
  - 2024an, europar parlamenturako hauteskundeak.
  - 2026an, herriko bozak eta Euskal Elkargoko lehendakariaren hautatzea.

EHBairentzat **lehentasun nagusia 2026ko bozak izanen dira**. Lau urte hauetan kausitu behar duen hedapen eta indartze prozesuaren baitan, hauteskunde horietan irabazteko aukera izanen duten eta Urruñan, Ziburun, Uztaritzen, Itsasu, Hiriburun, Aiherran egin bezala gehiengoak eraikitzeke ahalik eta hautagaitza gehien aurkezteko parioa egiten du, bere hautagaitzak gaztetu eta berritzearen alde eginez. Ezkerreko proiektu abertzalea indarturik atera beharko da, boz kopurua emendatuz eta egun bere esku dituen herriak ez ezik, berriak eskuratzeko ahalegina eginez. Hiriguneetan ordezkariak lortzea ere ezinbesteko parioa izanen da. Hauteskunde horien prestaketa eta erabaki nagusien hartzea lau urteko ibilbidean zehar garatu beharreko plangintzaren baitan egiten dira.

Hauteskunde senatorial eta europarrei buruzko orientabideak, azaroaren 26an Baionan iraganen den Kongresuan mozioak bozkatzuz finkatuko dira.

## 4.- EHBairen funtzioak ondoko urteetan

Euskal Herriaren aldeko prozesuan azken urteetan egin diren aitzinamenduek ondoko urteetan segida berri bat izanen badute, ezkerreko mugimendu abertzaleak funtsezko

papera bete beharko du helburu hori lortzeko. Ildo horretan, EHBai Ipar Euskal Herriko panorama politikoan indar nagusietakoa bilakatu den heinean, prozesu hori aitzinera eramaten laguntzeko bere funtzioak berregokituko ditu.

### 4.1.- EHBai, herri prozesuaren sustatzaile

EHBaik fase honek eskatzen duen herri adostasun zabalaren logika elikatuko du Ipar Euskal Herriarentzat funtsezkoak diren gaietan lorpen berriak kausitzeko. Beste tendentzia politikoetako indar eta hautetsiez gain, herri eragileekin batera elkarlanean aritzea lehentasunetako bat izanen da gehiengoak osatu, herri mobilizazio bateratuak bultzatu eta Estatuaren aitzinean herri gisa kokatzeko. EHBairen jarduera politikoa elkarlan eta adostasun dinamika horrekiko koherentea izanen da.

### 4.2.- Sekuentzia instituzional berriaren bultzatzaile

Ondoko urteetako erronka nagusietakoa Euskal Elkargotik haragoko estatus politiko eta instituzionalaren aldaketa bideratzea izanki, EHBai eragile politiko aktiboa izanen da Ipar Euskal Herriaren aitortza instituzionalaren aldeko dinamika zabal horretan.

- Batera plataformaren gisako espazio partekatua(k) bultzatuko ditu eta segimendu iraunkorra egiten du mugimendu barneko eztabaida landuz eta espazio horietan bere ordezkarien bidez ekarpen iraunkorra eginez.
- Mugimendu gisa beste eragileekiko (hautetsi, mundu ekonomikoa zein herri eragile) interlokuzio politiko azkartu eta garatuko du, eta estatus politikoaren definizioa adosteko bidean proposamen politiko propioak mahai gaineratuko ditu, elkarrekin prozesua aitzinarazteko ekarpen gisa.
- Izan ere, prozesu partekatu horretan, aldaketa politikoaren irismena eta anbizioa eragile guzien agendan kokatzea izanen da bere funtzioetako bat.

### 4.3.- Proiektu politiko integral baten eskaintza jendarte osoari

Ipar Euskal Herriaren biziraupen eta garapenerako oinarritzeko gaietan gehiengo sozial, politiko eta instituzionalen aldeko parioa egiten badu ere, EHBaik justizia sozialean oinarritzen den Euskal Herri burujabe baten aldeko proiektu politiko defenstatzen du. Are gehiago, sinetsita gaude, egungo krisi sistemikoaren aitzinean, Ipar Euskal Herriak beharko lituzkeen egiazko aterabideen eramaile izaten ahal dela.

Ildo horretan, Ipar Euskal Herriko biztanleei, langile klase eta herri sektore xumeen interesak lehenetsiz, programa politiko integral bat eskaini behar die, bere inguruan al-

ternatiba izanen den gehiengo berri bat osatzen joateko helburua harturik. Egun, gero eta gehiago dira EHBairen-gandik aterabide politikoak espero dituzten herritarrek eta fase honetan, ezkerreko mugimendu abertzaleak proposamenak egin behar ditu.

Egitasmo politiko horrek aipatu diren erronkak baina horiez haraindiko gaiak barne bilduko ditu eta EHBaik bere ekintza politikoaren bidez eta instituzio ezberdinetan (boterean, gehiengoetan edo oposizioan) gauzatzeko lana eramanen du. Gisa berean, hauteskunde ezberdinetako programak osatzeko iparrorratza izanen da, bai eta borroka ideologikoa egiteko ere. Hala, mugimendu gisa jar-duera koherente bat garatu ahalko du.

#### **4.4.- Hauteskunde erronkei anbizioz ekin**

Instituzioetako ardurak edo karguak hartuko dituzten jendeen hautatzeko dira hauteskundeak. Abertzale bezala, jokoan den dimentsio hori ez dugu gutxiesten ahal eta are, Euskal Herriaren subiranotasuna aldarrikatuz, geroa finkatzen duten sektore eta toki guzietan sartu behar dugula berresten dugu. Instituzioak integratu behar ditugu, Euskal Herriaren eraikitze toki garrantzitsuak eta gakoak izan daitezkeelako, geroa erabaki eta eraikitzeo tresnak bereganatzen ahal dituztelako. Hartzen dituzten erabakiengatik, erabiltzen duten diruagatik eta baliatzen dituzten sareengatik, instituzioek (herriak, Elkargoa, Departamendua, Eskualdea, frantses parlamentua...) biztanleen eguneroko bizia eta Euskal Herriaren geroa baldintzatzen dute.

Hauteskundeek, gainera, indar harremanetan eragin nabarmena dute eta proiektu politiko ezberdinek duten babesa azaleratzen dute. Horregatik, gure lehiakide edo etsai politikoei tokia utziz gure proiektua trabatzeko edo ahultzeko arriskua hartuko genuke. Kontrara, azken urteetan lortu emaitza onak erakusten dutenez, ezkerreko proiektu abertzaleak zentralitate hartu du jendartean eta erreferente politiko azkarrago batean bilakatu da herritarren babesa emendatu den heinean.

Instituzio bakoitzaren ezaugarrien araberrako hauteskunde eskaintza eginen du EHBaik, aitzinerago aliantza estrategiaren atalean argituko denez. Edozein gisaz, hauteskundeak eta instituzioak Euskal Herriaren eraikuntzarako eta gure proiektu politikoan aitzinatzeo tresna gisa ulertu behar ditugu, ez haatik, helburu huts gisa. Gure anbizioa, hauteskunde bakoitza Euskal Herriarentzat ekar dezakeen aitzinamendu politikoaren ikuspegian, ahalik eta emaitzarik onenak eskuratzea, botere mailak handitzea eta ordezkaritza instituzionala azkartzea izanen da.

EHBaik hauteskunde zein instituzioetan parte hartzeko pario argia egiten duela berretsirik, arretaz zainduko ditu instituzioetan parte hartzeak denboran ekar ditzakeen arriskuak, hala nola: osoki instituzioei begira aritzen den mugimendu batean bilakatzea bere beste funtzioak ahulduz

edo baztertuz; edota hauteskunde/instituzioetako ikuskerara mugatuak mugimenduaren ildo politikoa eta erabakiak gidatzea.

#### **4.5.- Lan instituzionala, eraldaketarako**

Erran bezala, instituzioak tresna gisa ulerturik, EHBairen xede nagusia da instituzioak herri prozesua aitzinarazteko eta gure proiektuak marrazten duen eraldaketa sozial eta politikoa gauzatzeko tresna gisa baliatzea. Eta baita, hautetsi abertzaleek elkarte-ekintzaren ahotsa eraman eta sustengatzea ere.

Ezkerreko abertzaleentzat biziki garrantzitsua da egunerokotasunaren kudeaketa egitea eta sinesgarritasuna irabaztea. Hautetsi abertzaleak zentzu guzietan eredu-garriak izan behar dira. Egintza horretan, justizia sozialean oinarritzen den Euskal Herri burujabe baten aldeko politikak eta neurriak bideratzearen perspektibak gidatu behar gaitu, ahalik eta aldaketa sakonenak bultzatuz instituzioetatik. Horregatik da beharrezkoa, aitzinetik erran dugunez, EHBaik proiektu politiko berri bat osatzea eta araberrako dispositibo berriak eraiki edo aktibatzea.

Halaber, kontuan hartzekoa da ez dela gauza bera Euskal Elkargoan, Departamenduan edota Herriko Etxean lan egitea, ez eta boterean, gehiengoan edo oposizioan izaitzea ere. Bakoitzean ditugun indar harremanek markatzen dituzte egingarritasunerako baldintzak, baina garrantzitsua da eraldaketa ikuspegiko politika publikoen aldeko jarduerara eramatea toki guzietan.

Azkenik, herrietan eredu publiko-komunalean sakontzeko udal politika herrigile baten aldeko parioa eginen du EHBaik. Tokiko eskalak permititzen baitu instituzioaren eta komunitatearen arteko lankidetzara eredu berriak plantan ezartzea eta arazo zein erronkei kolektiboki erantzuteko bide berriak esperimentatzea, honen bidez behetik gorako eraldaketa prozesua elikatu eta gauzatzeko. Gogoeta hori 2026ko herriko bozei begira eginen da.

#### **4.6.- Herri mobilizazioaren sustapena**

EHBaik bereziki zubi bat izan behar du mugimendu ezberdinen aldarrikapen eta instituzioen artean. Identitate bikoitz horren eramaile da sortu zenetik, hauteskunde guztietan parte hartuz, baina baita eztabaida ideologikoan, hainbat mobilizaziotan eta karrikako borroketan inplikatuz ere. Hauteskunde estrategia azkar bat egituratu eta formalizatzeak ez du kalte behar ekintza politiko hori.

Nolanahi ere, biziki garrantzitsua da EHBairen rola edo funtzioa eragile sozialen edo herri mugimenduenarekin ez nahastea, eta dinamika ezberdinekin konkurrentzian ez sartzea. EHBai harreman iraunkorrean izanen da herri mugimenduenarekin, arlo ezberdinetako borrokan egoeraz gogoetatzeko eta bere ekintza politikoa horren baitara

egokitzeko. Oro har, gai ezberdinetan, eragile edota sektore ezberdinen artean bultzaturiko mobilizazio zabalaren sustatzaile rola beteko du.

Bestalde, kontuan hartu behar da, azken urteetako aitzinamenduei esker, jendartearen zati batek alternatibak espero dituela EHBairen aldetik. Ordezkaritza instituzional handiagoa eskuratu izanak ardua handiagoa eman dio herritarren begietara eta hori dela eta, ekintza politiko proposatzailea lehenetsiko du, beharrezkoa den guzietan salaketa egitearekin batera.

## 4.7.- Borroka ideologikoa eta mezu propioa

Prozesu partekatutako baten aldeko parioa egiteak, ibilbide horrek eskatzen dituen aldarrikapenak eta urratsak adostuak izatea suposatzen du. Gure ikuspegiarekin bat egirik ere, ezkertiar eta abertzale gisa hainbat aldarrikapen ideologikoki apaltzera eraman gaitzake. Hori du taktikoki jokatzeko eta Ipar Euskal Herriko gainerateko indarrekin urrats berriak egin nahi izateak.

Hala ere, EHBaiek bere irakurketa propioak eskaini behar ditu, betiere prozesuarekiko sintonian eta honen anbizio maila indartzeko helburuarekin. Gure oinarri sozialari, oro har biztanle guzietan eta Frantses Estatuari begirako mezuak ongi orekatzen asmatu beharko du, hiru hartzaileen arabera irakurketak eta diskurtsoak garatuz.

## 5.- EHBairen izaera

### 5.1.- EHBai, proiektu abertzale eta ezkertiarren eramaile

EHBai Ipar Euskal Herriko mugimendu politiko ezkertiar, abertzale, ekologista eta feminista da. EHBai adin guzietako gizabanakoz edota herritarrez osaturiko mugimendu ainitza da. Ez da gehiago alderdien arteko aliantza bat eta antolakunde gisa alderdiek ez dute gehiago EHBain parte hartzen. Bere jardun eremua Ipar Euskal Herriko 3 probintzia historikoen osatzen dute: Xiberoa, Baxe Nafarroa eta Lapurdi.

Berdintasun eta elkartasun sozialean oinarritutako 7 probintzia historikoen batzen dituen Euskal Herriaren subiranotasuna eraikitze mugimendu politikoa da EHBai. Euskal Herria munduan eta Europan kokatzen den nazioa da eta beraz, Euskal Herriarentzat munduko zein Europako beste nazioen heineko eskubideak aldarrikatzen ditu EHBaiek, ez gehiago baina ezta guttiago ere: Euskal Herriak nazio burujabea izan behar du elkartasunezko Europa sozial batean. EHBaiek eredu ekonomiko eta sozial burujabea, justua eta ekologikoa eraikitze bidea jarraitzen du. Gizaki guzien berdintasuna eta ongi izatea ahalbidetuko duen eredu bat eraikitze parioa egiten du, baita luraren, ingurumenaren eta biodibertsitatearen osasuna segurtatzeko eta hobetzeko konbikzioa gorpuztu ere.

EHBai mugimenduaren ibilmoldea bere nortasuna osatzen duten printzipioetan oinarritua da:

- Hizkuntza: EHBairen hizkuntza euskara da. Euskararen erabilpena gune guzietan bermatzeko, euskaradunak ez direnentzat bitartekoak eskaini behar dira: itzultzaileak, euskarri idatzi elebidunak (txosten, powerpoint...).
- Parekotasuna: ordezkariak, mekanismo eta komunikazio guzietan gizon eta emazteen arteko parekotasuna bermatuko da.
- Ordezkaritza orekatua: belaunaldi ezberdinak, sektore geografiko ezberdinak bermatu behar dira ordezkariak osatzerakoan. Ordezkaritza ororen mandata denboran mugatua da.
- Parte hartzea, transparentzia eta demokrazia: EHBaiko militante guztien artean epe motz, ertain eta luzeko taktikak eta estrategiak eztabaidatu eta adosten dira, modu parte hartzaile eta demokratikoan. EHBai mugimenduaren barne prozedurak transparenteak eta demokratikoak dira. Kidegoak instantzia guzietan parte hartu dezake eta Biltzar Nagusien bitartez erabaki nagusi guzietan parte hartzeko aukera du.

EHBai mugimendu politiko zabala da eta bertan bilduak dira Ipar Euskal Herriko sektore ezkertiar, abertzale eta ekologistak. Zentzu horretan, Ipar Euskal Herria osatzen duten jendarte sektore sozial, kultural eta geografiko ezberdinei begira jarria da. Borroka sektorial eta instituzional ezberdinetan aktibo dauden ezkerreko militante abertzaleen etxe amankomuna izateko bokazioa du ere.

Kidegoak erabakitako lan ardatzen arabera, EHBaiek bere jardun propioa garatzen du alor ezberdinetan, alor instituzionalean tarteko, baina baita borroka sektorial berezitatean ere, adibidez Etxebizitzaren edo Euskararen gaietan.

EHBaiek arreta berezia jarriko dio ezkerreko gazteria abertzaleari, bai bere kidegoari begira arreta eta mekanismo berezituak plantan ezarri, baina baita EHBain proiektu politikoa erreferentziatzen duten gazte erakundeei mota anitzeko laguntza eskainiz ere (teknikoa, formakuntza, ekonomikoa...).

Ildo beretik, kontuan hartu beharko du Ipar Euskal Herriko biztanleriaren zati nagusi bat adineko dela eta horien gain egitura eta langile anitz mobilizatzen dela lurralde osoan; halaber, emazteak mugimenduan parte hartzeko arreta berezia ezarriko du, beharrezkoak diren mekanismoak pentsatuz; eta azkenik, fenomeno demografikoa ere segituko du, Euskal Herrira bizitzera heldu diren jendeak ere oso presente izanez..

### 5.2.- Mugimendu abertzalearen ADN

Lurraldean dauden beste antolakunde politikoei konparatuz, abertzale mugimenduak antolakunde politiko soilera ez murrizteko berezitasuna du. Hasieratik, abertzaleen kimenak ekimen ugari sustatu ditu sektore sozial ezberdine-

tan: kultura, euskara, laborantza, tokiko enplegua, migratzaileen harrera, trantsizio energetikoa, ekintza sindikala... Ekimen horiek askotan hutsune instituzional bati erantzunez egituratu dira. Gehienak, balioespen instituzionala itxoin gabe, ardura edota hutsunea beren gain hartzeko borondate kolektiboan oinarritu dira. Kasu batzuetan, ekimen horiek erabaki instituzional bat inposatzea lortu dute, hartu duten zabaltasunagatik edota sortzen jakin izan duten indar harremanagatik. Mugimendu abertzalea eraiki duten engaiamendu ezberdin horiek mugimendu abertzalearen historiaren parte dira, are gehiago historia horren parte azkar eta ukaezinak dira. Mugimendu abertzalearena den ADN hori indartu egin behar da bihar ekimen eta iniziatiba berriak sortzeko.

Eremu instituzionalean parte hartzeko eta bertan erantzukizunez aritzeko nahiak argi erakusten du ondare historiko horren osagarri izan nahi duen ardatz instituzional bat egituratzeko nahia. Hautetsi abertzaleek herri mobilizazio eta ekintzari eutsi behar diote, sustengatu eta baita ere bertan oinarritu eta berari arretaz kasu eman. Hala ere, abertzaleek eramandako edo beste indar batzuekin kudeatutako ekintza instituzionala ez da mugatu behar haren hurbileko engaiamendu sektorialen sustengu bakarreara. Gure proiektu politikoari erantzuten dioten dispositibo berriak eraiki edo aktibatu behar ditu.

Engaiamendu sektorial eta instituzional guzietan beren zilegitasuna dute, eta maila berean baloratzea merezi dute. Ikuspegi horrek arreta berezia galdegiten du, alde batetik aipaturiko osagarritasuna entretenitzeko eta bestaldetik mugimendu abertzalea aitzinarazteko posizionamendu bikoitz horretan. Estrategia bikoitz horren ardura duen erakunde politikoak EHBai izango da, zalantzarik gabe, luzera begira funtzio hori betetzeko egokiena.

### **5.3.- EHBairen identitate bikoitza: ekintza sozio-politiko eta lan instituzionala**

Erran bezala, EHBai bera ere identitate bikoitz horren eramaile da: sortu zenetik hauteskunde guzietan parte hartu duen erakunde batena, baina baita eztabaida ideologikoan, hainbat mobilizaziotan, karrikako borroketan eta auzolanean eraman diren alternatibetan parte hartu duen erakunde batena ere. Hauteskunde estrategia handinahiago bat egituratu eta formalizatzeak ez du eraginik izan behar ekintza politiko horretan. Azken horrek, gainera, ekintza instituzionalaren oinarri eta ongari bihurtu behar du. Batzuetan hautetsiak lagundu ditzake erabakiak hartzerako orduan, gure orientabideetara are egokiago diren erabakiak hartzeko. Identitate bikoitz horrek indar militante ezberdinak biltzeko aukera ere ematen du, batzuetan desberdinak diren profilak erakarriz, mugimendu berdinen baitan motibazio-iturri ezberdinak izan daitezkeelako. Identitate bikoitz hori etengabe zaintzeak ezinbestekotzen du EHBairen barne mailako antolakuntzaren baitan atal «instituzionala» eta «eztabaida ideologikoaren eta mobilizazioen» atala modu orekatuan eli-

katzea: instantzien osaketan, zuzendaritzako eta tokiko taldeen bilkuren gai zerrendetan, barne batzordeen gaiak aukeratzekoan, permanenteen lan-denboraren banaketan, bitarteko finantzarioen banaketan, formakuntza gaien hautaketan, deklarazio publikoetan...

Egunerokoan, oreka hori errespetatu daiteke hautetsiek Biltzar nagusiez gain EHBairen barne instantzia ezberdinetan parte hartzen dutela segurtatuz, eta hautetsiak ez diren militanteak lan instituzionala tratatzen duten lan talde edo bilkuretan parte harraraziz.

## **6.- Aliantza estrategia**

### **6.1.- Herri akordioak, gehiengo sozial eta politikoak**

EHBaik bere proiektu politikoak eraikitzeko orduan demokraziaren joko zelaiaren aldeko apustua egiten du. Zentzu horretan, gehiengo politiko eta sozialek eramandako dinamika ezberdinen bitartez (sentsibilizazioa, mobilizazioa, Estatuarekin elkarrizketa, alternatiba errealean eraikuntza...) ezkerreko abertzaleen aldarrikapenak errealitate bihurtzeko estrategiaren hautua egiten du.

Gehiengo sozial eta politiko bat egituratzen denean, herri akordio bat dagoela kontsideratzen du EHBaik, hau da, Ipar Euskal Herriko gehiengo politiko eta sozialaren borondatea edo nahia ordezkatzeko duen herri akordioa dagoela. Modu horretan, ahots bakarrean mintzo da Ipar Euskal Herria, baita Pariseren aitzinean ere. EHBaik garrantzia berezia ematen dio indar metaketa horri, burujabetza prozesuan aitzinatzeak gure indarretatik haragoko artikulazioa galdegiten duela konbentziturik baita.

Ipar Euskal Herrian borroka esparruaren arabera herri akordioak osatu dira azken urteetan, adibide garbienak gatazkaren ondorioen konponbidearen arloan (Bakegileak, Bake Bidea...), euskararen aldeko borroka ezberdinetan (brebeta eta baxoa euskaraz, Molac legearen ezetzatzaren aitzinean sortutako mobilizazioa, sare elebidun publikoaren defentsa, Korrika...), Ipar Euskal Herriaren instituzionalizazioaren sektorean (Batera plataforma, Euskal Elkargoaren sorrera eta konpetentzien hartzea), AHTren kontrako desmartxan edota etxebizitzaren aldeko aldarrikapenetan (etxebizitzaren aldeko plataforma) ikus daitezkeelarik.

Herri akordio bakoitzak bere aldarrikapena(k) errealitate bihurtzeko egin molde ezberdinak edo berezituak izan ditzake:

- Mobilizazioaren bitartez presio soziala interlokutore publiko edo pribatuei.
- Interlokuzio eta negoziazio lana.
- Sentsibilizazioa gizarteko gizabanako edo entitate ezberdinei begira.



- Praktika alternatibo errealen plantan ezartzea.
- Erabaki politiko instituzionalak bultzatzea.
- Beste edozein egin molde baketsu...

Borroka sektorearen arabera herri akordioan parte hartzen dutenen osaketa ezberdina izan daiteke. Adibidez eskola publikoan lehen mailan osoki euskaraz erakaste-ko aldarrikapena aitzinera eramateko osatuko den herri akordioaren partaideak ez dira derrigorrez berdinak izanen Ipar Euskal Herriko komisio sozial eta paritarioa aldarrikatzeko osatuko den herri akordioan. Borroka sektore bakoitzaren herri akordioaren partaideak, borroka sektore horren indar harremanen eta posizioen arabera izanen dira.

Edozein gisaz, EHBai kontsideratzen du azken urteetan Euskal Herriarentzat funtsekoak diren gaitan adostasun aski zabal eta transbertsala lortu dela eta horrek ahalbidetu duela prozesu politiko baten aldeko indar harremanak sortu eta adostasunak eraikitzea. Indar harreman horiek permititzen dute Frantses Estatuaren aitzinean herri ikuspegiz aritzea eta ondoko urteetan prozesu hori elikatzea eta indartzea izanen du xede EHBai, Ipar Euskal Herriak aitzinamendu berriak egin ditzan.

Bestalde, EHBairen inguruan osatu nahi den gehiengo instituzionalaren konposaketak, ez du zertan borroka sektore ezberdinetan nagusiki osatuak izanen diren herri akordioaren konposaketaren berdina izan behar ere. Litekeena da gainera, gehiengo politiko instituzionala osatzeko aliantza espazioa, aktibazio sozialerako erabiltzen den aliantza espazioa baino hertsia izatea.

Hala ere, herri akordioak eta gehiengo politiko-instituzional bat osatzeko orduan, kasu emango da eramangarriak ez diren kontraesanak ez sortzeari, karrikako borrokak eta borroka instituzionalak osagarriak izaten segitu behar dutelako, eta espazio partekatuetan lortzen ditugun adostasunak garatzen direla segurtatu behar delako.

## 6.2.- Aliantza elektoralak:

Gure oihartzuna jendartean azkartzeak, hauteskundeetan ditugun emaitzen goratzeak, ezagupen instituzionalaren lehen urratsa den Ipar Euskal Herriko Elkargoa lortzeak, borroka armaturik gabeko etapa politiko berri baten idekitzeak, gure anbizio politikoak gorago finkatzea behartzen gaituzte. Azken hauteskundearen emaitzek gainera EHBai Ipar Euskal Herriko ezkerreko indar politiko nagusi gisa kokatu dute mapa politikoan.

Orain heldu da ondoko urteei begira EHBairen inguruan Ipar Euskal Herriaren gehiengo politiko eta instituzional bat eraiki eta artikulatzeko tenorea. Gehiengo horretako partaide guziek beren burua ezkerrekotzat edota abertzaletzat ez duten arren, EHBairen helburuei begira aitzinatzen segitzeko eduki programatikoak bere egingo lituzkete, bai ezkerreko proposamenak, baita gure nazio identitatearen defentsarako eta egituraketarako proposamenak ere.

EHBai kontsideratzen du, haatik, ez dagoela hauteskunde guzietarako eredu bakarrik eta bere siglapean aurkezteko posibilitatea presente izanen du herriko bozez aparteko hauteskunde bakoitzaren eta egiten duen azterketa politikoaren arabera.

Halere, Iparralde osoan, egokitasuna ikusten den guzietan, EHBaiko militanteak edo horien sustengatzaileak irabaztera edo instituzioen kudeaketan izatera eramaten dituzten hauteskundeetako estrategiak plantan ezarri behar ditugu segidan zehaztuak diren printzipioen baitan.

Hauteskunde garaipena puntualki baino ezin da lortu EHBai hautagaitza soil batekin, beraz, irabazteko edo instituzioen kudeaketan izateko parioa egiten denean, hala-beharrez, aliantzen galdera dakar, hots, EHBai zertarako eta beste zein indar politikorekin partekatzen duen bidea.

Hala ere, hauteskundeetan aliantza bat egitea edo sentibiltate ezberdinak batzen dituzten indar metaketa zabalengan parte hartzea ez da berez helburu bat, herria aldatzeko eta aitzinamendu politikorako tresna bat baizik. Horregatik beti presente izan beharko da zenbaterainoko urratsa suposatzen duen hautu elektoral bat edo bestea egiteak. Honako printzipio hauek bete beharko ditu:

- Balizko akordio batek aurre-negoiazio bat izan beharko du oinarri, eta horren bidez zehaztuko dira gobernantza eta eduki programatiko nagusiak. Akordioaren edukiak baldintzatzen du bere sinatzeko aukera. Edozein akordio EHBairen proiektu politikoaren eraikuntza ahalbidetu behar du, eta ezin da edozein prezioan irudikatu.
- Negoziaketa orok kontuan hartu beharko du, nahitaez, tokian tokiko indar harremana. EHBaiko militanteek hartu beharko duten protagonismoa, errola eta lekua ezin dira izan errealki dagoen indar harremanetik at.
- EHBai ez du posizio kontserbatzaileak edota jakobinoak defendatzen dituzten hautagaitzekin aliantza elektoralik egingen.
- Aliantza estrategia oro balioespen bikoitz batean oinarritu beharko da: tokiko militanteen iritzia kontuan hartuz eta azken hitza EHBai mugimenduarena izanik. Eta horretarako, EHBai eztabaidarako eta erabakiak hartzeko mekanismo egokiak ezarri beharko ditu barne mailan, beti behar den antizipazioz jokatzuz.
- Era berean, kontuan hartu beharko da aliantza bateko partaideak aukeratzekoan, partaidetza koherentea dela EHBai parte hartzen duen karrikako mobilizazioetako beste plataforma edo kolektiboaren osaketarekin. Era berean, testuinguru politikoa eta indar harremanen egoera aztertuko ditu, akordio horrek izan ditzakeen onurak eta kalteak edota sor ditzakeen bestelako mugimenduak neurtuz. Hots, azterketa ikuspegi elektoral eta ordezkari instituzionaletik haragokoa izanen da, egiten den urrats orok Ipar Euskal Herriaren eraikitako adostasunei begira nolako eragina izan dezakeen kontuan hartuz.

### 6.3.- EHBildurekin akordio estrategikoa:

Euskal Herriaren eraikuntza nazionala eta eraldaketa soziala bultzatzeko xedez, Euskal Herriko ezkerreko indar subiranisten arteko indarrak bildu eta elkarrekin aritzeko, EHBai eta EHBilduren arteko akordio estrategikoari bizia emanen zaio.

Nafarroan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Euskal Elkargoan errealtate politiko ezberdinak diren arren, Euskal Herri mailako gogoeta eta praktikak segurtatzea garrantzizkoa da Euskal Herriaren eraikuntza nazional eta soziala ahalbidetzeko.

Euskal Herriko ezkerreko indar subiranisten akordio estrategikoak helburu ezberdinei erantzun beharko die:

- Euskal Herria nazio burujabea Europan: Euskal Herria, izenez eta izatez, munduan eta Europan kokatzen den nazioa da. Europako egituraketan bestelako eredu bat ahalbidetzeko, munduko zein Europako beste nazioak bezalako eskubideak behar ditu Euskal Herriak, ez gehiago baina ezta gutxiago ere.
- Euskal Herriaren eraikuntza: Gaurko errealtatetik abiatuta, zazpi probintzia historikoak batuko dituen proiektu estrategikoa urratsez-urrats gauzatzen hasteko engaiamendua hartzen da. Ipar-orratza, Euskal Herriaren naziotasuna eta lurraldetasunaren defentsa dira eta erabakitzeke eskubidea horren oinarri.
- Euskararen ofizialtasuna eta normalizazioa: Euskal Herriko eremu guztietan euskararen aitortza, ofizialtasuna eta normalizazioa aldarrikatu behar dira, xedea, herritar ele-anitzez osatutako Euskal Herri euskalduna lortzea delarik.
- Gatazka armatuaren ondorioen konponketa: Gatazka politikoa eta indarkeria gainditu behar dira Euskal Herrian eta horretarako irabazle eta galtzailerik gabeko bake justua eraiki beharra dago elkarriketa eta akordio bitartez. Zentzu horretan biktima guzien aitortza eta erreparazioa beharrezkoa da, errelatoen aniztasuna onartu eta errespetatu, baita euskal preso eta iheslarien etxeratzea gauzatu ere.
- Eredu ekonomiko burujabea, bidezkoa eta ekologikoa: burujabetza ekonomikoa defenditu beharra dago, eredu bidezko eta ekologiko bat eraikitzea helburu izanda.

Ezkerreko indar subiranisten arteko akordioa plantan ezartzeko xedez, EHBai eta EHBildu-ren arteko lan talde

bat plantan ezarriko da. Lan talde horrek elkarlan eremu praktikoak identifikatuko ditu, dokumentu batean barne bildu eta ondoren bi egituren zuzendaritzek berretsi beharko dute dokumentua. Dokumentuan barne bildutako lehenetsuneko ardatzak operazionalizatzeko beharrezkoak diren baliabideak (tekniko eta humanoak) konpartituko dira, bakoitzaren ahalekin arabera, elkartasun izpiritu baten baitan.

EHBildu eta EHBairen arteko elkarlana esparru hauetan emanen da:

- Instituzioen arteko lankidetzeta.
- Eragile sozial, ekonomiko eta kulturalen lankidetzeta.
- Ezagutza eta esperientzien trukaketa.
- Diskurtso eta komunikazio konpartitua.
- Nazioarteko eragiletza konpartitua.

### 6.4.- Frantses Estatu mailako harremanak

Aliantza atal honetan, nazioarteko harremanek garrantzia berezia dute EHBai bezalako mugimendu batentzat. Horien artean Frantses Estatu mailako harremanak indartzea eta garatzearen alde arituko da EHBai.

Régions et Peuples Solidaires (R&PS) federazioaren baitan, estaturik gabeko nazioen arteko saretzea eta elkarlana iraunkortzeko borondatea argia da. EHBaik segituko du parte hartzen federazioan herrien arteko loturak azkartzeko.

Azpimarratzekoa da ere, elkarlan hau ez dela soilik R&PS saretik eginen. Azken urteetan egin bezala, Corsica Libera edo FLNKS bezalako mugimenduekin elkarriketak eta lan amankomuna garatzeko engaiamendu hartzen du EHBaik. Edozein gisaz, eragile horiez gain, herri horietan eta Britainian ere, harremanak zabaltzeko parioa egiten du. Saretze lan horren helburu nagusia da herrien arteko elkarlana eta elkartasuna bermatzea, Frantses Estatuak duen politika zapaltzaile eta zentralistaren parean, gure herriaren burujabetza prozesuan aitzinatzeke aukera politiko berriak zabaltzeko. EHBai lan horretan bere toki osoa hartu behar du.

Azkenik, Frantses estatu mailako harremanetan, frantses indar politiko eta eragileekin informazio eta harreman bi-deak une oro garatuko dira, batez ere lan ardatz estrategikoetan EHri begira aitzinamenduak egiteko aukera ikusten den guztietan.

